VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboen aldaketak Variaciones activo financiero	0	0,00
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboen aldaketak Variaciones pasivo financiero	0	0,00
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>6.925.000</b>	<b>41.620,09</b>
	<b><u>AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA</u></b>	<b><u>69.644.533</u></b>	<b><u>418.572,07</u></b>
	<b><u>TOTAL PRESUPUESTO GASTOS</u></b>		
	SARREREN EGOERA/ESTADO INGRESOS	PTA.TAN PTAS	EUROTAN EUROS

I. KAPITULUA	Zuzeneko zergak Impuestos directos	0	0,00 0,00
II. KAPITULUA	Zeharkako zergak Impuestos indirectos	0	0,00
III. KAPITULUA	Tasak eta beste sarrera batzuk Tasas y otros ingresos	20.375.000	122.456,22
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak Trasferencias corrientes	49.269.533	296.115,86
V. KAPITULUA	Ondare-sarrerak Ingresos patrimoniales	0	0,00
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>69.644.533</b>	<b>418.572,07</b>
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealen besterentzeak Enajenación inversiones reales	0	0,00
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak Transferencias de capital	0	0,00
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboak Activos financieros	0	0,00
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboak Pasivos financieros	0	0,00
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>0</b>	<b>0,00</b>
	<b><u>AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA</u></b>	<b><u>69.644.533</u></b>	<b><u>418.572,07</u></b>
	<b><u>TOTAL PRESUPUESTO GASTOS</u></b>		

## Euskaltegiaren Aurrekontua

	GASTUEN EGOERA/ESTADO GASTOS	PTA.TAN PTAS	EUROTAN EUROS
I. KAPITULUA	Pertsonalaren ordainketak Remuneración del personal	47.769.707	287.101,72
II. KAPITULUA	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak Compra de bienes corrientes y servicios	2.423.501	14.565,53
III. KAPITULUA	Interesak Intereses	0	0,00

IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	1.690.920	10.162,63
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>51.884.128</b>	<b>311.829,89</b>
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealak Inversiones reales	366.093	2.200,26
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak Transferencias de capital	0	0,00
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboen aldaketak Variaciones activo financiero	0	0,00
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboen aldaketak Variaciones pasivo financiero	0	0,00
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>366.093</b>	<b>2.200,26</b>

**AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA**      **52.250.221**      **314.030,15**  
**TOTAL PRESUPUESTO GASTOS**

	SARREREN EGOERA/ESTADO INGRESOS	PTA.TAN PTAS	EUROTAN EUROS
I. KAPITULUA	Zuzeneko zergak Impuestos directos	0	0,00
II. KAPITULUA	Zeharkako zergak Impuestos indirectos	0	0,00
III. KAPITULUA	Tasak eta beste sarrera batzuk Tasas y otros ingresos	6.756.100	40.604,98
IV.KAPITULUA	Transferentzia arruntak Trasnferecias corrientes	45.494.121	273.425,17
V. KAPITULUA	Ondare-sarrerak Ingresos patrimoniales	0	0,00
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>52.250.221</b>	<b>314.030,15</b>
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealen besterentzeak Enajenación inversiones reales	0	0,00
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak	0	0,00

	Transferencias de capital		
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboak Activos financieros	0	0,00
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboak Pasivos financieros	0	0,00
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>0</b>	<b>0,00</b>

**AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA**      **52.250.221**    **314.030,15**  
**TOTAL PRESUPUESTO GASTOS**

### Kirolaren Udal Erakundearen aurrekontua:

	GASTUEN EGOERA/ESTADO GASTOS	PTA.TAN PTAS	EUROTAN EUROS
I. KAPITULUA	Personalaren ordainketak Remuneración del personal	29.880.000	179.582,42
II. KAPITULUA	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak Compra de bienes corrientes y servicios	77.340.000	464.822,76
III. KAPITULUA	Interesak Intereses	100.000	601,01
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	0	0,00
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>107.320.000</b>	<b>645.006,19</b>
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealak Inversiones reales	0	0,00
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak Transferencias de capital	0	0,00
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboen aldaketak Variaciones activo financiero	0	0,00
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboen aldaketak Variaciones pasivo financiero	0	0,00
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>0</b>	<b>0,00</b>

<b><u>AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA</u></b>		<b><u>107.320.000</u></b>	<b><u>645.006,19</u></b>
<b><u>TOTAL PRESUPUESTO GASTOS</u></b>			
SARREREN EGOERA/ESTADO INGRESOS		PTA.TAN PTAS	EUROTAN EUROS
I. KAPITULUA	Zuzeneko zergak Impuestos directos	0	0,00
II. KAPITULUA	Zeharkako zergak Impuestos indirectos	0	0,00
III. KAPITULUA	Tasak eta beste sarrera batzuk Tasas y otros ingresos	64.650.000	388.554,33
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak Trasferencias corrientes	41.345.000	248.488,45
V. KAPITULUA	Ondare-sarrerak Ingresos patrimoniales	1.325.000	7.963,41
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>107.320.000</b>	<b>645.006,19</b>
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealen besterentzeak Enajenación inversiones reales	0	0,00
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak Transferencias de capital	0	0,00
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboak Activos financieros	0	0,00
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboak Pasivos financieros	0	0,00
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>0</b>	<b>0,00</b>
<b><u>AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA</u></b>		<b><u>107.320.000</u></b>	<b><u>645.006,19</u></b>
<b><u>TOTAL PRESUPUESTO GASTOS</u></b>			

## Aurrekontu bateratua

GASTUEN EGOERA/ESTADO GASTOS		MILAKA PTA.TAN PTAS*1000	EUROTAN EUROS
I. KAPITULUA	Personalaren ordainketak Remuneración del personal	470.408,2	2.827.210,46

II. KAPITULUA	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak Compra de bienes corrientes y servicios	543.831,5	3.268.493,15
III. KAPITULUA	Interesak Intereses	33.088,0	198.862,89
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	207.685,9	1.248.217,52
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>1.255.013,7</b>	<b>7.542.784,01</b>

VI. KAPITULUA	Inbertsio errealak Inversiones reales	627.585,1	3.771.862,37
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak Transferencias de capital	44.591,0	267.997,31
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboen aldaketak Variaciones activo financiero	46.000,0	276.465,57
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboen aldaketak Variaciones pasivo financiero	78.775,0	473.447,29
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>796.951,1</b>	<b>4.789.772,53</b>

**AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA**                      **2.051.964,754**      **12.332.556,55**  
**TOTAL PRESUPUESTO GASTOS**

	SARREREN EGOERA/ESTADO INGRESOS	MILAKA PTA.TAN PTAS*1000	EUROTAN EUROS
I. KAPITULUA	Zuzeneko zergak Impuestos directos	328.170,0	1.972.341,42
II. KAPITULUA	Zeharkako zergak Impuestos indirectos	130.000,0	781.315,74
III. KAPITULUA	Tasak eta beste sarrera batzuk Tasas y otros ingresos	361.141,1	2.170.501,72
IV.KAPITULU A	Transferentzia arruntak Trasferencias corrientes	886.534,7	5.328.180,58
V.	Ondare-sarrerak	18.116,0	108.879,35

KAPITULUA	Ingresos patrimoniales		
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>1.723.961,8</b>	<b>10.361.218,82</b>
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealen besterentzeak	0,0	0,00
	Enajenación inversiones reales		
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak	149.096,0	896.085,01
	Transferencias de capital		
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboak	7.000,0	42.070,85
	Activos financieros		
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboak	171.907,0	1.033.181,88
	Pasivos financieros		
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>328.003,0</b>	<b>1.971.337,73</b>
	<b><u>AURREKONTUKO SARRERAK GUZTIRA</u></b>	<b><u>2.051.964.754</u></b>	<b><u>12.332.556.55</u></b>
	<b><u>TOTAL PRESUPUESTO INGRESOS</u></b>		

**3.- HITZARMENA.** Anbulatorioa tokiz aldatzeko, Eusko Jaurlaritzarekin eta Osakidetzarekin sinatu beharreko hitzarmena.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“Osasun zentro berri bat eraikitzeko, Eusko Jaurlaritza, Osakidetza eta Beasaingo Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren zirriborroa aztertu ondoren, hirigintza-batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo akordio-proposamena egiten dio:

Lehenik. Hitzarmen horren edukia onartzea.

Bigarren. Alkate jaunari hitzarmen hori sinatzeko baimena ematea.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “El Diputado de Carreteras nos ha remitido un compromiso por escrito diciendo que la Diputación aportará 60 millones a esta operación. Nosotros tendríamos que participar con un 25% del coste de

ejecución de la rotonda. Lo queda pendiente es darle forma de convenio y someterlo a la aprobación de este Pleno.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute:

Horren ondorioz, aho batez ondorengo hitzarmena onartu da eta Alkateari baimena eman zaio dokumentua sinatzeko:

**“OSASUN ZENTRO BERRIA ERAIKITZEKO, EUSKO JAURLARITZA, OSAKIDETZA ETA BEASAINGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.**

Beasainen bi mila bateko...

### **BILDURIK**

**GABRIEL INCLAN IRIBAR** jauna, Sanitateko Kontseilaria, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari legez

**FRANCISCO VILLAR COLSA**, Zuzendari orokorra, Osakidetzaren ordezkari legez

**JON JAUREGI BEREZIARTUA**, Beasaingo Udaleko Alkate-udalburua. Udalbatza Osoak bi mila bateko .....hartutako erabakiak ekintza honetarako ahalmena emanda.

### **AURREKARIAK**

**I.-** 1981ko urriaren 2an, Udalbatza Osoak Gizarte Segurantzako Gordailuzaintza Orokorrari, zuzenean eta dohainik bi mila metro karratudun azalerako lursaila lagatzea erabaki zuen, eskualderako osasun zentroa eraikitzeko. Zentro hori eraikitzeko, 1984ko otsailaren 16an batzorde iraunkorrek egindako bileran, obra-baimena eman zen.

Lagapen-eskrituran espresuki honela esaten da: “eskualderako osasun zentroa gehienera ere bost urtean eraikiko da eta osasun zentro moduan hogeita hamar urteetan zehar egongo da. Aipatutako eperen bat igarotzen bada baldintza horiek bete gabe, Ondasun Araudiaren 111.3 artikulua dioenaren arabera, lursailak beren eduki guztiekin automatikoki uda-ondarera itzuliak izango dira.”

**II.-** Orduetik hona igarotako denborak azaldu du, osasun-zerbitzuak emateko dauden baldintzak eta instalazioak hobetu egin behar direla eta

horretarako beharrezkoa da medikuntza orokorrerako eta hainbat medikuntza-espezializazioentzat bulego gehiago egokitzea.

Errepide, ibai eta trenbidearen artean dagoen gaur egungo Zaldizurretako eraikinaren zabalkuntza premiazkoa bada ere, aldi berean zailtasunak azaltzen dira, izan ere, handitu ezker, ambulatorio ondoan dauden aparkaleku-plazak kendu egingo lirateke eta horiek larrialdietarako eta ezinduak diren pertsonentzako nahiz ambulanzientzako beharrezkoak dira.

**III.-** Bestalde, "Zaldizurretako bidegurutze" izenez ezagutzen den bidegurutzean, Zaldizurretako osasun-zentro horretatik gertu dagoelako, zirkulazio handia dago, bertan GI-120 errepidea, N-1 eta hiriguneko irteera elkartzen dira, eta sarritan, herriko ibilgailuen zirkulazioan betekadak eta ilarak sortzen dira. Beraz, Zaldizurretako gune horretan zirkulazioa berrantolatzeke eta bere onenean jartzeko beharrak nabarmenak dira.

**IV.-** Arazoa teknikoki aztertu ondoren, irtenbidea, toki horretan biribilgua jartzea izango litzateke. Horretarako bi aukera daude:

- Lehenengo aukerak, jabetza pribatuko lursailak eskuratzeko kudeaketak egitea eta Zaldizurretako bidegurutzetik hurbil dauden eta gaur egun aisialdi eta denbora-pasa gune bezala erabiltzen diren jabari publikoko ondasunak desafektatzea ekarriko luke, herriko hiriguneari jenderik gehiena ibiltzen den lekuetako bat kenduz.

- Bigarrena eta egingarria kontsideratzen dena, gaur egun eskualdeko Zaldizurretako osasun-zentroak okupatzen duen lursailaren zati bat hartzeaz gain, eraikin hori udalerriko beste toki batera eraman beharra ekarriko luke.

**V.-** Beasaingo Udala, 36 HA-n, bizileku eta zerbitzuetarako kalifikatuta dagoen Bernedo-eneko zelaian, 7.410 m<sup>2</sup>ko lursailaren jabe da. Zoru Legearen 165 eta 167 artikuluen eta Ondasun Araudiaren 109.2 artikuluen arabera, Udalak Eusko Jauriaritzari dohainik lagako dio eskualdeko osasun-zentro berria kokatzeko behar duen lursaila.

Argi dago hori guztia, udalerriko eta eskualdeko biztanleriaren onurarako izango dela eta arrazoi hauengatik izan ere:

- Bernedo-eneko Osasun-zentroaren instalazio berriak, gaur egungo beharrei hobeto egokituko zaizkie.

- Bernedo-eneko osasun-zentrora joateko oinezkoentzako sarrera hobetuko da eta aparkalekuaren arazoari irtenbidea emango zaio, izan ere,

Bernedo-eneko zelaian aparkalekuak badaude (gaur egun daudenak kentzen badira beste eremu berri bat egokituko da).

- Zaldizurretako biribilgu berriak, zirkulazioko oztopoak gutxitu egingo ditu eta puntu horretan herrirako sarrera-irteerak erraztu egingo dira, ondorioa hiriguneko trafikoaren hobekuntza izanez.

**VI.-** 2001eko .....Sanitate Kontseilariaren Aginduaren arabera, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena bere alde aurreikusi da.

**VII.-** Proposatutako helburuak betetzeko, bildutakoek kontratatuzeko ahalmena elkarri aitortu diote eta hitzarmen hau idazten da ondorengo

### **HITZBAKETEKIN:**

**Lehenik.** Beasaingo Udalak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari, osasun zentro berria eraikitzeke lursaila, dohainik lagatzeko konpromisoa hartzen du. Osasun zentroaren azalera 2.000 metro karratukoa izango da gutxi gorabehera eta Bernedo-eneko zelaian kokatuko da.

Dohaineko lagapena Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onartuko du, 14/1983ko Euskadiko Ondare Legearen 63.2 artikularen arabera.

**Bigarren.** Beasaingo Udalak egikaritze-proiektua egiteko, finantzatzeko eta eskualdeko osasun zentro berria eraikitzeke obrak adjudikatzeaz (zentroa eraikitzeke kostua gutxi gorabehera 320.000.000 pezetakoa izango da) gain, inguruko hirigintza-obrak egiteke konpromisoa hartu du.

Eraikin berria egiteko, Osakidetzak, Beasaingo Udalarari 120.000.000 pezetako (721.214,53 euro) dirulaguntza emango dio.

Ordaintzeko era honelakoa izango da:

2001. urtean: 1.000.000 pezeta (6.010,12 euro) aurrerapen moduan obra-proiektua egiteko.

2002. urtean: 9.000.000 pezeta (54.091,09 euro) egindako obraren faktura aurkeztutakoan.

50.000.000 pezeta (300.506,05 euro), Beasaingo Udalak obra-zuzendaritzak eta ekitaldi horretan kopuru horretan egikaritutako obra-ziurtagiriak aurkeztutakoan.

2003. urtea: 60.000.000 pezeta (360.607,26 euro) obra-zuzendaritzak eta ekitaldi horretan kopuru horretan egikaritutako obra-ziurtagiriak aurkeztutakoan.

Obra-zuzendaritza adjudikatzeko ardura ere Beasaingo Udalak hartuko du, baina adjudikatu aurretik Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari eta Osakidetzari jakinaraziko dio.

**Hirugarren.** Obrak bukatutakoan Beasaingo Udalak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari dohainik lagako dio Bernedo-eneko osasun-zentroa sanitate-arreta eskaintzeko. Lagapen hori Gobernu Kontseiluak onartuko du 14/1983 Legearen 63.2 artikulua araberan.

**Laugarren.** Eraikinak hogeita hamar urte igaro baino lehen sanitate-arreta eskaintzea uzteagatik, ondasun higiezinak itzuli beharko balira, Beasaingo Udalak, Osakidetzak emandako dirulaguntza eguneratuaren bitartez konpentsatuko du Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa, erabileraren aldaketa Udalak eskatuta izaten bada.

**Bosgarren.** Beasaingo Udalak, Bernedo-eneko osasun-zentro berria abian jartzen denean, egungo Zaldizurretako zentroaren eraikina eta lursaila itzultzeko espedientea izapidatzen hasiko dela adierazten du.

**Seigarren.** Hitzarmen honen segimena egiteko sinatu behar duten erakundeen ordezkariekin osatutako Batzorde Mistoa eratzen da, ondorengo funtzioekin:

- a) Hitzarmena interpretatzea eta betetzen den ikuskatzea.
- b) Funtzionamenduaren segimena egitea.
- c) Guztia egikaritzeko behar diren ekintzak proposatzea.

**Zazpigarren.** Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen denetik aurreikusitako izapide guztiak burutu arte, baina beti ere kredituak egoteari baldintza tuta.

Eta guztiaren adostasun-frogatzat bildutakoek hirukoiztuta sinatu dute dokumentu hau, goiburuan aipatutako data n eta lekuan.”

**4.- 2. SEKTOREA.** 2. Sektoreko Egitasmo Partzialaren aldaketari behin-behineko onespina ematea.

Alkate jaunak, hirigintza batzordeburuari hitza eman eta hark proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: 2. Sektoreko Egitasmo Partzialaren aldaketari behin-behineko onespena ematea.**

2001eko maiatzaren 16ko Alkatetzako Ebazpenaren bidez, 2. Sektoreko Egitasmo Partzialaren aldaketari hasierako onespena eman zitzaion eta espedientea jendaurrean jarri zen, 2001eko maiatzaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2001eko maiatzaren 18ko Euskaldunon Egunkarian eta 2001eko maiatzaren 23ko “El Diario Vascon” iragarkiak argitaratuz eta alegazioetarako 15 eguneko epea emanez. Aldi berean jabe guztiei banakako jakinarazpenak egi zitzaizkien, baina ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, batzorde honek, ELOLEko 22,2 c) artikularen arabera, Udaltzari ondorengo akordio-proposamena egiten dio:

**Lehenik.** 2. Sektoreko Egitasmo Partzialaren aldaketari behin-behineko onespena ematea eta hala badagokio espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea behin betiko onespena emateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**5.- IZENDEGIA.** Zelaeta kaleko zenbaki bakoitien onespenerako proposamena.

Alkate jaunak Patxi Plazaola hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“Zelaeta kaleko 1A eraikinak, hemendik aurrera 1 zenbakia izango du. Jarraian eraiki behar diren eraikinek, hurrenez hurren zenbaki bakoitiak izango dituzte, hau da, 3, 5 eta abar.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

Une honetan Jon Berbel jauna batzarralditik irten egin da.

**6.- MOZIOA.** EHk laneko segurtasun-baldintzei buruz aurkeztutako mozioa .

Alkate jaunak Andoni Antxia (EH) jaunari hitza eman dio eta honek aurkeztutako mozioa irakurri du:

“Ekainaren 15etik 19ra bitarteko lau egunen tartean, Nafarroa Garaia, Gipuzkoa eta Arabako **lau langile hil dira** eta beste lau, oso larriki zaurituak gertatu dira, izan diren sei lan-istriputan. Eguna joan eta eguna etorri luzatzen den zerrenda amaigabe honetan, Aitor Oiartzabal Ordizarra izan dugu azkeneko biktima. Goierritik Estatu Batuetara lanera joandako gazte honek, herritik milaka kilometrotara bere lanpostuan aurkitu du heriotza.

Gertaera honek, hausnarketarako bide eman behar digu eta ezin dugu ekidin ezinezko istripu batzuen aurrean gaudela esan eta lasai gelditu. Gehiegi dira hildakoak eta zaurituak gure herrian, oraindik ere benetako neurriak hartu gabe egoteko. Gertaera hauen ardurak, dagozkien tokietan kokatu behar ditugu eta herritar, sindikatu, alderdi politiko, instituzio eta abarren esfortzuak biderkatu, aurrean dugun gertaera konponezin hau, azkenekoa izan dadin.

Hau guztia kontutan izanik, Beasaingo Udalbatzaren Osoko Bilkurari, honako mozio hau onar dezala eskatzen diogu.

1.- Aitor Oiartzabalen senitarteko eta lagunen sufrimenduarekin bat egiten dugu eta gure elkartasuna eskaintzen diegu gertaera trajiko honen erruz bizi dituzten une zail hauetan.

2.- Lan-istripu eta heriotza hauetariko asko ekidin daitezke. Hauek ekiditeko ardura zuzena duten enpresariei eta administrazio desberdinetako arduradunei dei argi bat egin nahi diegu, produktibitateari, diru azkarrari eta errentagarritasunari lehentasuna eman ordez, lan-baldintza egokiei, eta laneko segurtasunari eman diezaieten.

3.- Langileen segurtasunean urteroko inbertsioak burutzeko exijitzen diegu Ordiziako eta Goierriko enpresari guztiei, langileen bizia arriskuan jartzeko egoerarik gerta ez dadin.

4.- Aitor Oiartzabalen heriotzaz eta Euskal Herri osoan gertatzen diren beste lan-heriotza guztien aurrean protesta egiteko antolatu diren ekimen guztietan parte hartzeko deia luzatzeaz aparte, Udal honek Kontzentrazio isil baterako deia egiten die herritar guztiei. (Zehaztu eguna eta ordua).

5.- Erabaki honen berri herritar guztiei, komunikabideei, Goierriko enpresei eta Goiekiri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jauna (PP): “En el Pleno de las Juntas Generales de Diputación, sobre una proposición no de norma se instó a la Diputación Foral de Gipuzkoa para que en el plazo de tres meses realice un estudio para analizar la oportunidad y viabilidad de crear una normativa para la prevención de riesgos laborales. Por lo tanto pienso que no tiene sentido alguno el que se presente aquí esta moción.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE): “Gu orokorrean EHk aurkeztutako mozioarekin ados gaude, baina guk aldaketa pare bat proposatuko genuke. Oso ondo iruditzen zaigu zuen kezka langileen segurtasunaz. Antzeko zerbait gustatuko litzaikuge beste heriotza eta hilketa batzue z ere. Proposatzen ditugun aldaketak hauek dira:

- 2. puntuan ...produktibitateari, diru azkarrari eta errentagarritasunari lehentasuna eman ordez..., esaten duen tokian, ondorengo esatea: ...produktibitateari ematen dien lehentasun bera, lan-baldintza egokiei eta laneko segurtasunari eman diezaieten.”

Guk uste dugu enpresa guztiak, produktibitateari eta errentabilitateari beti eman behar diotela lehentasuna. Hori ez da kaltegarria. Kaltegarria da besteari lehentasuna ez ematea.

- 3. puntuan esan, gu Beasaingo Udal moduan ez garela inor Ordiziako jendeari ezer exigitzeko. Guk hori aldatu egingo genuke eta jarriko genuke Goierriko enpresa guztiei deialdia egitea...”

Alkate jaunak EHko zinegotziei galdetu die ea prest dauden aldaketa horiek onartzeko.

Andoni Antxia jaunak (EH): “Guk ezin dugu hau aldatu, ez baitugu guk idatzi.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Mozio honen aurrean lehenik esan, ez dagikula, Aitorren heriotzaren arrazoia lanean bete behar diren segurtasun-baldintzak ez betetzeagatik izan den ala ez den. Badakigu gaur egun lan-istripu maila igotzen ari dela eta igoera horrek baduela arrazoi bat, estatistikoki behintzat, produkzioa igotzearekin eta prekaritatearekin. Baina kasu honetan ez dugu segurtasunik eta zehaztasunik. Bestalde, ez dakigu Goierriko enpresek, lan-baldintzen arloko segurtasun-neurriak, zein mailatan betetzen dituzten edo ez dituzten betetzen. Gu kezkatzen gaituena zera da, lan-istripuek horren maila handia izateak. Dena dela esan, askotan ez dela enpresariaren arazoa bakarrik, baizik eta langileen arazoa ere bai, zeren eta exigitzen diren lan-neurriak langileek ez dituzte betetzen. Udal honetan ere horrelako arazoak izan ditugu. Beraz nik kolektibo guztiari eskatuko nioke, bai

enpresariei eta baita langileei ere, baina batez ere enpresariei, horretaz ardua gehiago artzeko. Baita ere azpimarratu, horrelako egoeratan kanpora begiratzen dugula, baina etxera begiratu beharko genukeela. Zentzu horretan esan, guk eskatuta daukagula lanerako segurtasun-plangintza. Aurrekontuetan kontusail bat aurreikusi da, plangintza horrek ekarriko dituen erosketei aurre egiteko. Ez dugu pentsatzen Udalak kontzentrazio isila deitzeko arrazoiak daudenik. Beraz, guk ezezkoa emango diogu mozioari.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Gure kasuan abstenitu egingo gara.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da era ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (EH)  
Aurkako botoak: 7 (EAJ/PNV-EA, PP)  
Abstentzioak: 3 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino gutxiago izan direnez, ez da onartu mozioa.

## **PREMIAZKO PUNTUA**

### **22. HA-KO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA**

Lehenik premiazko puntu moduan gaia tratatzeko onartzen den ala ez jakiteko bozketa egin da eta aho batez onartu da puntua tratatzea.

Ondoren, Patxi Plazaola, hirigintza batzordeburuak, 2001eko uztailaren 11ko proposamenaren berri eman du:

“Lehenik. 22. Hirigintza Arearekiko Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea, dokumentuak onartutako irizpide eta irtenbideak jasotzen dituelako.

Bigarren. Planeamendu Erregelamenduaren 125. eta ondorengo artikuluek diotenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarkia GAOn, probintzian gehiena zirkulatzen duen egunkarian eta Euskaldunon Egunkarian argitaratuz, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

## **7.- ESKAERA ETA GALDERAK**

### **BATASUNA**

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Andoni Antxia jaunak EH taldearen bozeramaileak, Udalari jakinarazi egin dio, alegia, hemendik aurrera, EHko zinegotzi-taldea osatzen dutenak, BATASUNA izenarekin ezagutuko direla.”

### **ATENTATUA**

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Asteartean Madrilen izandako atentatuan hila izan zen poliziaren alde, hilketa salatu eta gure doluminak kaleratu eta familiari eman nahi dizkiogu eta orain arte Udal honek gehiengo batez onartua izan duen ildotik, ETARI bere ekimena eta bortzikeria behingoz utz ditzala eskatu nahi diogu.”

Andoni Antxia jaunak (EH): “Hori zer da, erregu, galdera edo deklarazioa?”.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Deklarazioa”.

Andoni Antxia jaunak (EH): “Hori mozio bezala sartzen da”.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Onartzen dut forma-akatsa.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Aurretik komentatu dugu eta gu ados gaude horrelako deklarazio batekin. Egia da paperik ez dugula ekarri, baina ez dut uste paperik beharko dugunik, horrelako kasu baten aurrean mezua garbi uzteko.”

Andoni Antxia jaunak (EH): “Orduan dena dago soberan.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera gaueko bederatziak eta hamabostean amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta ziurtatu dut.